

OHARRA**Hainbat neurri adostu dira COVID-19 Neurri Ekonomikoen Mahaiaren lehen bileran**

COVID-19aren eraginez herriko hainbat sektore pairatzen ari diren kalteak arintzera bideraturiko neurri ekonomikoak zehazteko mahaia eratu zuen joan den astean Oñatiko Udalak: COVID-19 Neurri Ekonomikoen Mahaia. Hain zuzen ere, ostiralean (apirilak 3) egin zen lehen bilera, eta, besteak beste, gaur artean harturiko neurriak jakinarazi zituzten Gobernu Taldeko kideek. Hainbat zergen ordainketa epea atzeratzeko erabakia dago horien artean: Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Gaineko Zerga -irailaren 15era atzeratu da-, Ondasun Higiezinaren Gaineko Zerga -abuztuaren 1etik irailaren 15era atzeratu da- eta Ibl iraunkorra, garaje eta kanposantuko tasak -irailaren 7tik urriaren 15era atzeratu da-. Gainera, kiroldegiko urteko kuotaren zati proportzionala itzuliko da eta ez da bide okupazioagatiko (hesiak, aldarnioak, eraikuntza materiala...) zein baratze parkearen erabileragatiko tasarik kobratuko.

Horiekin batera, bestelako ekinbideak ere jakinarazi zituzten: Maker komunitateko kideek EPIak egin ditzaten materiala erostea, udalak alokairuan dituen tabernei (Eltzia eta Zubikoa Kiroldegia) alokairurik ez kobratzea -alarma egoeran derrigorrean itxita egon beharra duten bitartean egongo da martxan neurria-, Olaburuko zein Olalaneko guneen alokairua ez kobratzea -horiek itxita dauden bitartean mantenduko da- eta etxeko lanak telematikoki egin ezin dutenen ikasleei internet sarea ahalbidetzeko partida sortzea (2.000 euro). Ostera, gizarte zerbitzuen alorrean ere hartu du neurririk Oñatiko Udalak. Besteren artean, etxebizitza sozialen alokairuaren kobrantza eten du; martxan jarri dira diru-sarrerarik ez dutenek oinarritzko produktuak eskura ditzaten bonoak; 20.000 euro gehiago izango dira gizarte arriskuko diru-laguntzetarako eta 35.000 euro gehitu zaizkio gizarte larrialdietarako diru-laguntzen partidari -orain, 205.000 eurokoa da partida-.

Horrez gain, herriko saltokiei, tabernei, kafetegiei, jatetxeei eta bestelako jarduera profesionalei bergako neurrien lanketarekin ere badabil Oñatiko Udala. Esaterako, lanean ari da alarma egoerak irauten duen bitartean, aipaturiko horiek uraren kontzeptu finkoaren eta zaborraren tasarik ordaindu beharrik izan ez dezaten -Gipuzkoako Uraki dagokio horiek kobratzea-. Era berean, ez da mahaien eta aulkien bide-publikoaren okupazioagatiko tasarik kobratuko, eta, gainera, uztailearen 1etik urriaren 15era atzeratuko da horren ordainketa.

Bestetik, lanean segitzeko konpromisoa berretsi du Oñatiko Udalak. "Orain artean harturiko neurriak jakinarazi eta datozen egunetan hartuko genituzkeenak adostu ditugu COVID-19 Neurri Ekonomikoen Mahaiaren lehen bileran. Hasiera besterik ez da izan. Geuk lanean segitzen dugu, proposamen berriak lantzen, inguruko ereduak aztertzen, eredu propioak sortzen, hainbat proiektu garatzen, sektore zaugarrienen egoera ezagutzen... Berandu baino lehen neurri berriak adostuko ditugulakoan nago. Esaterako, herriko dendariei, ostalariei eta bestelakoei laguntzeko proposamen berriak lantzen dihardugu", azaldu du Izaro Elorza Oñatiko alkatea.

Zer da COVID-19 Neurri Ekonomikoen Mahaia?

Diru-laguntzak, neurri fiskalak eta bestelako laguntzak abiarazteko sortu da COVID-19 Neurri Ekonomikoen Mahaia. Hain zuzen ere, udal ordezkariak -Izaro Elorza alkatea, Xabier Igartua Ogasun eta Sozioekonomia batzordeburua, Anik Zubizarreta Partaidetza eta Garapen komunitario batzordeburua, Ainhoa Galdos oposizioko udal bozeramailea eta Jon Kepa Gerrikagoitia Sozioekonomia batzordeko kidea- eta hainbat alorretako udal teknikariak -Ogasun, Sozioekonomia eta Gizarte Zerbitzuen alorrean dihardutenek- osatzen dute aipaturikoa.